

**ASPALDI ALDE EGINDAKO ETA ORAINDIK**

**GOGOAN DUDAN AITONARI**

Haritz Casabal Pikabea, 16 urte

*Pasai Antxo*

1

Barruan daukat neronek mina,  
Haserre eta bizi ezina,  
Malkoak doaz jausiz poliki  
Bi begietatik bina. BIS  
Erakutsi nahi dut grina,  
Egina dut ahalegina,  
Egina dago egina.  
Nire aitona ikustearren  
Edozer nezake sina,  
Bere ondoan edo urruti  
Bizitza ez baita berdina. BIS

2

Zeru-urdinetik zerbait harago  
Baina gurekin zuen nahiago,  
“Faltan sumatzen zaitut aitona  
Bakarrik nago zeharo”. BIS  
Heriotzari hordago,

Ez sentitzeko esklabo,  
Sentitu arren arraro.  
Nire barruan sentipen on bat  
Indarrez beteta dago;  
Maitatzen zaitut ene aitona  
Beste inoiz baino gehiago. BIS

### 3

Alde egin zuen hemendik gora,  
Hemendik urrun zeru ondora,  
Hargatik beti ekarri ohi dut  
Ene aitona gogora. BIS  
Mantso joaten da denbora,  
Ikusiko da gerora,  
Eta ez goaz inora.  
Pentsamendu bat ateratzen zait  
Bihotz hautsitik kanpora,  
Urteen kabuz baietz elkartu  
Aitona eta biloba. BIS

### 4

Lortua nuen nik zoriona,  
Lau urteetan zein giro ona,  
Baina zuk alde egin zenuen  
Eta hori ez da broma. BIS  
Gure harreman sakona,  
Umea eta gizona,  
Zure ahotsaren sona.  
Senti dezaket ozen helduaz  
Ni laguntzekotan hona;  
“Lasai biloba, lasai biloba,  
Ondoan duzu aitona”. BIS

**5**

Begian jaio, poliki joan,  
Masail bidean era geldoan,  
Begian jaio, poliki hazi  
Eta hil berriz ahoan. BIS  
Bizitza zein azkar doan,  
Berdin da hemen edo han,  
Oroimenean eroan.  
“Aitona zaitut urruti baina  
Era berean ondoan,  
Nahiz eta zu hil, ez zaude hilik  
Nik beti zaitut gogoan”. BIS

**6**

Azken agurra ez zen elizan,  
Bere baserri hartan zen izan,  
Zu agurtuaz ene aitona,  
Merezi zenuen gisan. BIS  
Baietz ikusi berriz han,  
Sagar-ondoan gerizan,  
Biziko dudan bizitzan.  
Isilduko naiz aitonak hitzok  
Gogoan eduki ditzan,  
Hitzak faltatzen zaizkidalako  
Nahiz arrazoi asko izan. BIS

Doinua: Naufragoarena